



## ABENDUA

J	1 ♦ <b>HH2:</b> Mediku azterketa ♦ <b>2.BATX</b> .Nestléra bisita
V	2 ♦ <b>MUS:</b> Preskolaniako eta eskolaniako entseguak Olentzerorako ♦ <b>HH2</b> Mediku azterketa
S	3 ♦ Euskararen eguna
D	4
L	5 ♦ <b>ZUBIA</b>
M	6 ♦ <b>FESTA</b> Konstituzioa
X	7 ♦ <b>ZUBIA</b>
J	8 ♦ <b>FESTA</b> La Inmaculada. <u>12.30etan EUKARISTIA ESKOLAN</u>
V	9 ♦ <b>ZUBIA</b>
S	10
D	11
L	12 ♦ <b>2.BATX.</b> : 1go batxilergoko gainditu gabeko arloen ebaluazioa/ Deustoko unibertsitateko hitzaldia ♦ <b>DBH</b> Aitortzak
M	13 ♦ <b>PAST:</b> Kilo eta jostailu bilketaren hasiera ♦ <b>AG21:</b> 15.00h: Birziklatutako materialarekin egindako gabonetako apaingarrien jasoera ♦ <b>2º BATX:</b> Nebrijako unibertsitateko hitzaldia ♦ <b>DBH</b> Aitortzak
X	14 ♦ <b>LH:</b> Eskujaiotzen banaketa. 14.45etatik 15.10etara Hallean eta 17.00etatik 17.15etara liburutegian.
J	15 ♦ <b>DXT:</b> Olimpiadei buruzko bilera gurasoekin. 19.30etan areto nagusian. ♦ <b>DBH</b> Aitortzak
V	16 ♦ <b>HH2:</b> Txertoak ♦ <b>LH:</b> Eskujaiotzen esposaketaren hasiera 17.00etatik 17.30etara ♦ Elkarbidearen irteera Hondarribiara
S	17
D	18 ♦ <b>FAM:</b> Familien eukaristia
L	19 ♦ <b>MUS:</b> Koralen kontzertua Kaperan 19:00etan
M	20 ♦ <b>HH:</b> Gabonetako jaialdia ♦ <b>HH:</b> Abendualdiko ospakizuna. (4 eta 5 urtekoak)
X	21 ♦ <b>PAST:</b> Kilo eta jostailuak jasotzeko azken eguna. ♦ <b>LH:</b> Eskujaiotzen jasoera 17:00etan. ♦ <b>HH:</b> Abendualdiko ospakizuna (3 urtekoak)
J	22 ♦ <b>MUS:</b> Koralen kontzertua Olentzeroren festan.// Instrumentuen kontzertua areto nagusian 19.30etan ♦ <b>HH:</b> OLENTZEROREN bisita
V	23 ♦ Oporren hasiera eguerdian. <u>Ez da egongo jantoki zerbitzurik</u>
S	24 ♦ 19.00etan GABON GAUEKO MEZA
D	25
L	26
M	27 ♦ 06.00etan: Madridera irteera Olinpiadak
X	28 ♦ Olinpiada Marianistak
J	29 ♦ Madrid
V	30 ♦ 18.30etan: Gasteizera iritsi Olinpiadetatik
S	31 ♦ 19.00etan URTEBERRI EGUNeko MEZA

**ADI EGON: Urtarrilaren 9an, gaboneko oporrak ondoren klaseak hasiko dira**

HH: Haur Hezkuntza LH: Lehen Hezkuntza DBH: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza BATX: Batxilergoa



*Pentsatu, sentitu, egin eta izaten dakiten  
pertsonak bilatzen ditugu; beren ezagutza  
eskaintzen dutenak, beren eskuak eta bihotza  
mundua eraldatzeko*

(Gogo oinarra)



## 1 OLINPIADAK

Abenduak 27, 28 eta 29 egunetan XXXIV.Olinpiada Marianistak ospatuko dira, Amorós eskolan ain zuzen ere. Gasteiztik 150 kirolari baino gehiagok parte hartuko dugu, 30 arduradunetz lagunduta. Jokatuko diren kirolen artean emakumezkoen eta gizonezkoen saskibaloia, futbol 7, atletismoa eta igeriketa daude.

Gure kirolariak izugarri disfruta dezaten espero dugu eta zergatik ez? Medailaren bat ekartzen badute primeran.

Guraso bilera, datorren ostegunean, abenduaren 15ean izango da areto nagusian. Gure kirol taldeak animatuko ditugu.



## 2 KILO ETA JOSTAILUEN KANPAINA: 1600kg +1 // Abenduak 13-21



JUGUETES

Gure ikasleen artean bultzatu nahi dugun baloreetako bat solidaritatea da, gure munduak jasaten dituen injustiziaz jabetzea eta gure ikasleen solidaritatea piztea nahi dugu. Honetarako, gabonetan bi kanpaina jartzen ditugu martxan: kilo eta jostailuen kanpaina ain zuzen ere. Hiriko txiroentzako jostailu eta janaria biltzen dugu: Alde zaharreko Santa Maria parrokia da hau guztia hiriko behertuenekin banatzen duena. Balore hauek familian ere bultzatu eta landu behar dira, honetaz hitz egin, beraien konpartitzera bultzatu... Gutxika-gutxika, daukaten guztia baloratzen eta aurrean dutena errespetuz eta maitasunez begiratzen ikasiko dute. poco a poco sabrán agradecer todos los dones que recibimos y aprenderán a mirar a los otros con más respeto y cariño. Ea urte honetan, 1600kg lortzen ditugun! Eskerrik asko zuen parte-hartzeagatik.



## 3 GABONETAKO OSPAKIZUNAK

Abendurako dauzkagun Gabonetako ospakizunak gogorazi nahi dizkizuegu:

- Abenduak 4 eta 11, igandeak, eucaristía ospatuko da igandero bezala. 12:30etan kaperan.
- Abenduak 18-12:30etan: Familien eucaristía.
- Abenduak 24 eta 31: Gabon gaueko meza eta urte zaharreko meza izando dira.

Abenduak 19tik 23rako astean, Abendualdiko ospakizunak egongo dira- Gabonak HHkoekin. Etapa honetako gurasoak jasoko dute beharrezko informazioa.

Gure web orrian abendualdia familian ospatzeko materiala deskargatu dezakezuela gogorazi nahi dizuegu: [www.marias-gasteiz.org](http://www.marias-gasteiz.org)



## 4 EUSKERAREN EGUNA

Abenduak 3, larunbata, Euskararen egun internazionala ospatzen d. Hau ospatzeko, hainbat jarduera prestatu dira abenduko lehenengo egunetan egiteko:

- HH: esku-lanak, txontxongiloak, euskal dantzak...
- LH: marrazki lehiaketa, herri kirolak, karaokea, abestiak...
- DBH: bertsoak, irrintzi txapelketa, abestiak, txisteak, lip duba, super-galdera...
- BATX.: bertsoak, filmak, MINTZODROMOA ( gure ikasleak beste estola batzueko ikasleekin egon elkartu ziren euskaraz hitz egiteko).



## 5 URTEKARIA

Aurreko kurtsoetan bezala denok gaure irrikitan urtekaria ikusteko. Gabonetako oporran baino lehen bidali nahi dizuegu. Ikasle guztiei banatuko zaie, estés esan zutenei izan ezik. Portadak beste garai batzuetara hurbilduko gaita... aurtengoa berezia izango da!



## 6 AGENDA 21

Hirugarren urtez, Agenda 21etik birziklatutako materialekin egindako gabonetako apaingarrien lehiaketa antolatuta dugu. Abenduak 13an, 15:00etan, jasoko dira lanak eta eskujaitza eta postalekin batera aurkeztuko dira. Argazkian pasaden urteko parte-hartzaile batzuk ikus ditzakezue.



kristau.eskola



## 7 KE EN LA FACHADA DEL COLEGIO

Gure ikastetxea Kristau Eskola izeneko sarean sartuta dago. "Kristau Eskola Euskaldunak, sortu zenetik, eta dagoeneko mende bat luze, Euskal Herria eskolaratzerakoan eragin erabakiorra izan du. Ebanjelioaren balioetan oinarritutako hezkuntza proiektutik abiatu eta fede, kultura zein bizitzaren arteko solasaldi izateko keinua eginez, etengabeko berrikuntzei adi eta gaurkotutako eskolaren premia teknologiko eta pedagogikoei erantzuteko heziketa eskaintzen du". <http://www.kristaueskola.org/> KEk bere baitan, 141 ikastetxe, 7.000 irakasle, 100.000 ikasle gora eta 80.000 famili inguru biltzen ditu. Pixkanaka-pixkanaka, gizarteari, bizitzea egokitu zaigun mendeari erantzunez, eraiki dugun hezkuntza proiektua erakutsi nahi diogu. Hori dela eta Kristau Eskolako ikastetxeetan (Karmeldarrak, Biatortarrak, Jesuitak...) gure gure ikurra erakutsiko dugu.



## 8 PLAN ESTRATÉGICO 2009-2012

Ikastetxeko Web gunean eskuragarri daukazue kudeaketarako lerro estrategikoei buruzko laburpena gure [2009-2012 plan estrategikoaren barruan](#).

Partehartze bide ezberdinak erabiliz (elkarrizketak, asebetetze inkestak, kexak eta iradokizun buzoia...) familiek egiten dituzten proposamenak gure hausnarketa prozesuaren barruan erreferentzia dira eta hautaketa egin eta lehentasunak definitu ondoren gure urteko planetan gauzatzen da. Guzti hau dela eta eskerrak eman nahi dizkizuegu eta zuen ekarpenak jasotzen jarraitu nahiko genuke.



2 0 0 8